

2015eko URRIan "OSTEGUN, HISTORIAZ JARDUN!" PROGRAMAREN PARTE-HARTZAILEEN AURKEZPENA:

OSTEGUNA, urriak 1.

"Erregimen frankistaren eta Elizaren errepresio-diskurtsoa gerraostean" (Gemma Piérola Narbarte).

Gemma Piérola Narbarte historialaria da eta 2012an NAUPen bere tesia aurkeztu zuen, Franco garaiko diktadurapean emakumearen egoera Nafarroan aztergai izanik, honako izenburupean: "Emakumea eta ideologia Franco garaiko diktadurapean. Nafarroa 1939-1960". Egun, Gemmak Bigarren Hezkuntzan ematen ditu eskola saioak. Bere ikerketa-ibilbidean hamabosten bat artikulu eman ditu argitara, bai eta hizlari gisa hainbat hitzaldi-ziklotan parte hartu ere, hurbileko XX. mendeko historiari dagozkion gaien harian emakumeen zer esana hizpide izanik, beti ere. Era berean, Iruñeko Udalarekin lankidetzan aritua da hainbat ikerketa-proiektutan.

OSTEGUNA, urriak 8.

"Emakumeekiko errepresio franquista eta medikuntza-diskurtsoa" (Ana Urmeneta Marín).

Ana Urmeneta Marín erizaina da, bai eta Geografia eta Historian lizentziaduna ere. Halaber, beste egile batzuk lagun, honako liburu hauxe idatzi du: "XX. mendeko Iruñean emakumeentzako asistentzia soziala. Karitatetik profesionalizatzeraz". Iruñeko Udalak eman du argitara lan hori, eta Iruñea hiriko erizaintzaren historian agiri aberatsa bilakatu da. Emakume historialari honek argitara emaniko lanek ardatz izan dute gizartearen medikuntza-prozesua eta erizaintzaren historia Nafarroan.

OSTEGUNA, urriak 15.

"Ezkaabako emakumeak: laguntza sareak eta elkartasuna" (Amaia Kowasch Velasco).

Amaia Kowasch Velasco, gizarte laguntzailea da eta genero gaietan aditua; giza-antropologiako ikasle da, eta Txinparta Elkarteko lagunekin aritzen da elkarlanean (aipatu elkarteak Antsoaingo memoria historikoaren alde dihardu). Halaber, ikerketa egin du ardatz izanik Ezkaabako kartzelako emakumezkoak: bai kartzelaturikoen emazteak, bai giltzaperaturikoen zein emazteekin elkartasuna adierazi duten emakumeak. Horixe da bere lanaren laburpena.

OSTEGUNA, urriak 22.

Dokumentala "Zerrauts ogia. Gosearen grebak" eta solasaldia Patxi Eguilaz zuzendariarekin. 2014. 54 min.

"Zerrauts ogia" dokumental berriak jarraipena ematen dio *Eguzki Bideoak*, *Ustaritzeko Geronimo Institutuak* eta *Memoriaren Bideak* entitateek eginiko lankidetzari. Dokumentalak helarazten dizkigu Franco garaian izan ziren lanagatiko lehendabiziko protesta edo kekak, 1947 eta 1951 urteak tarteko. Une haietako zenbait protagonisten testigantzak plazaratuko ditu, batetik, eta egoera aztertu duten emakume eta gizonezko historialarien analisia eskainiko digu, bestetik, dokumentua osatzeko.

OSTEGUNA, urriak 29.

"Emakumeen presentzia mugimendu sozialetan" (Nerea Pérez Ibarrola).

Nerea Pérez Ibarrola historialaria da eta irakasle NAUPen. 1978ko Sanferminei buruzko unitate didaktiko bat aurkeztu du. Halaber, ikerketak egin eta hitzaldiak eskaini ditu honako gaiak hizpide: Iruñea hiriarren aldaketa, hiritarren mobilazioa trantsizioaren Iruñean.